

# ESKERRIK ASKO ZAHARRAK GARALAKO



1

Hemen nator barriro  
bertsoak kantari,  
hainbeste maite dodan  
neure buruari.  
Gaur artekoagaitik  
eskerrak Jaunari,  
eta datorrenagaitik ai,ai,ai  
konformatu hadi!

2

Behar ez diran gauzak  
sarri gogoratu  
eta behar diranak  
ezin bururatu.  
Hagaitik betikoak  
bardinak kontatu,  
hara zer jazoten dan: ai,ai,ai  
isiltzea ahaztu.

3

Hor lehengo baten zapla  
zintz orma zulora,  
jenteak: "lotsabako"  
eta zenbat lora...  
Behin baten domistiku  
eginda gustora,  
baina deskuido baten ai,ai,ai  
haginak kanpora.

4

Umetako kontuak  
badakidaz banan,  
ez jakin goizekoa  
zer zelan izan dan.  
Atxakiak asmau ta  
jausten gara tranpan,  
eskerrak hau guztia ai,ai,ai  
jatorkula txandan.

5

Gauzak holan dira ta  
gaur eta lehenago,  
bardin izango dira  
gaurtik geroago.  
Hau lege zaharra da ta  
bete behar dago,  
azkenarte eutsi... ai,ai,ai  
ta gero ordago!

6

Esan beharrik ez da  
zaharrak gareala,  
horregaitik gaur ere  
bizi naz aupala!  
Eskerrak daukagula  
Aita mundiala,  
badakigu hiltea ai,ai,ai  
bizitzea dala.

7

Zaharrak ez dauka gauza  
askoren beharrik,  
zentzuna ta fedea  
ta ez kontu txarrik.  
Gu beteko gaituana  
Jainkoa bakarrik,  
ta ez ahaztu zeruan ai,ai,ai  
ez dagola zaharrik.

8

Esan ahalak esanda  
ta zenbat gehiago?  
Zahar batek beti dauka  
zer esanik asko.  
Garanak garalako  
bizi gara bapo,  
eskerrik asko, Aita, *aai,ai,ai*  
zaharrak garalako.

Martzel